DATUA

Ondorio ekonomikoak

Ardurak. EAk galdera egin dio Nafarroako Gobernuari Gorenaren epaiak izan ditzakeen ondorioen gainean. Jose Mari Aierdik jakin nahi du zer ondorio ekonomiko eta politiko atera daitezkeen azkenean proiektua bertan behera gelditu eta espero zen tokiraino bete ezin bada. Halaber, urtegian inbertitu den dirua, «sailez sail» agertzeko eskatu dio EAk Miguel Sanzen gobernuari.

horren gainean hitz egin zuen Gorenaren epaia jakin eta berehala, eta epaia «laster» izango zela iragarri zuen.

Jose Luis Beaumont abokatuak esan zuen atzo, hala ere, maila apalagoko epaitegi batek —Auzitegi Nazionala— ezin duela goragoko baten epaiaren aurka egin —Auzitegi Gorena—. Beaumontek iragarri zion EGUNKARIari helegitea aurkeztuko dutela berriro, Auzitegi Nazionalaren epaia koordinakundearen iritziaren aurkakoa bada, eta gero, berriro, Konstituzionalera irits litekeela afera.

Europako Batzordeak ez ditu uxatu segurtasun zalantzak

Koordinakundeak atzo ere ukatu nahi izan zuen Europako Batzordearen erabaki baten inguruan prentsan agertutakoa. Apirilaren hasieran kaleratu zen erakunde horrek artxibatu egin zuela koordinakundeak aurkeztutako kexua Itoizko segurtasuna zela eta.

Nafarroako Gobernuko iturrien arabera, batzordeak baztertzen zuen horrela inolako arazorik zegoenik segurtasunarekin, eta ezeztatzen zuen proiektu teknikoaren gaineko edozein duda.

Beaumont abokatuak iragarri zuen atzo, ordea, Europako Batzordeak ez duela inolako erabakirik hartu gaiaz, eta aferaz «eskumenik» ez duela, hori baino ez duela esan. Beaumontek esan zuen Europako Arartekoa ikertzen ari dela Europako Batzordeak kexu horren gainean izan duen jokabidea.

Koordinakundeak gogoratu zuen, prentsaurreko berean, Madrilgo Fiskaltzak Ingurumen Ministerioko hainbat goi karguren aurka diligentziak zabaldu dituela, Huescan dagoen Santaliestrako urtegiaren prozeduran izaniko irregulartasunengatik.

Arduradun horien artean Itoizko proiektuarekin lotura zuzena izan duten kargudun politiko, teknikari eta ingeniariak daude, eta espetxe zigorrak eskatu dituzte dagoeneko haiendako.

DEMETRIO LOPERENA

INGURUMENAREN EPAI ETA BERRADISKIDETZERAKO NAZIOARTEKO GORTEKO IDAZKARI NAGUSIAREN ALBOKOA

«Estatu arrazoiak tarteko ez badira, baliogabetzat jo dezakete»

I. Petxarroman | DONOSTIA

Bere kargutik eta herritar moduan ere oso adi jarraitzen dio Demetrio Loperena zuzenbide adituak Itoizko urtegiaren aferari. Botere banaketa kolokan egon daitekeela iruditzen zaio.

■ Nola uzten du azken epai honek Itoizko urtegiaren afera juridiko-legala?

Auzitegi Nazionalak agindu zituen neurriak Nafarroako Gobernuak inpugnatu zituen, ez ziotelako uzten urtegia urez betetzen. Orain, Auzitegi Nazionalaren behin-behineko neurriak berretsi ditu Auzitegi Gorenak. Baina hori espediente horri dagokio. Orain falta da epai horren exekuzioari dagokiona. Izan ere, nahiz eta Gorenak baliogabetzat jo proiektua, konstituzionaltasun afera bat ireki zuen, eta Auzitegi Konstituzionalak eskuak garbitu zituen. Ez dakit azken epai honetan kontuan hartu duten Konstituzionalaren doktrina. Kontuan hartu badute, logikoa da hurrengo epaia ere norabide berean joatea. Kontuan hartu ez badute, berriz, edozer gauza espero dezakegu hurrengo epaian.

■ Botereen arteko banaketaren teoria nahiko larri ateratzen da Itoizko urtegiaren afera honetatik, ezta?

Bai, eta hori da afera honen muina. Hau da, 18 botere legegile dituen estatu batean, administrazioari gustatzen ez zaion epai bat atzera bota badezakete, edo praktikan jartzea ezinezkoa bada, legegileak esku hartzen duelako, honako egoera batean aurkitzen gara: botere banaketaren sistemaren erabateko deuseztapena. Horrek esan nahi duelako soilik aplikatuko direla botere legegileari ongi iruditzen zaizkion epaiak. Beraz, Itoizkoa ingurumen afera da, baina oinarrian dagoena hori baino garrantzitsuagoa da, eta da Auzitegi Gorenak epai bat ematen duela, eta Madrilgo eta Iruñeko parlamentuek legea aldatzen dutela epai hori ez dadin aplikatu. Hori hala egiten bada, botere banaketaren eta demokraziaren beraren oinarrizko printzipioak oso kolokan geratzen dira.

JOXE LAGALLE

BOTERE BANAKETA

«Larria litzateke botere legegileak judizialaren epaiak baliogabetzea interesatzen ez zaizkionean»

AUZITEGI NAZIONALAREN EPAIA

«Esan dezake Gorenaren epaia ezin dela aplikatu, baina ez proiektua legezkoa dela»

■ Posible da Auzitegi Nazionalak muzin egitea Konstituzionalak esandakoari, alegia, Nafarroako Gobernuak aldatutako Ingurumenaren Babeserako Legea konstituzionala dela?

Ez, kasu egin behar dio. Baina Konstituzionalaren epaia hain da anbiguoa, ezen esan dezake: legea konstituzionala da, baina baliogabetzat jo genuen ekimenak baliogabea izaten segitzen du, ekimen horri aplikatu zaiolako martxan jarri zen unean indarrean zen legedia. Ondorioz, ezin da urtegia bete. Oso litekeena da hipotesi hori. Horren aurrean zer egin lezake Gobernuak? Espediente administratiboa hasieratik abiatu. Hori legezkoa litzateke.

■ Baina hori posible da?

Jakina. Prozedura hasieratik abiatzen badute, proiektua aurkeztuz, ingurumen azterketa eginez, eta hasieratik gaizki egin zituzten urrats guztiak zuzenduz, lege berriarekin aurrera atera liteke. Orain, oso larria litzateke izatea botere legegile bat botere judizialaren aginduak baliogabetzen dituena interesatzen ez zaizkionean.

■ Eta botere judiziala ohartzen al da horretaz?

Epaitegi moduan arduratuta egon beharko lukete. Izan ere, administrazioaren aurka epai bat ematen duzun bakoitzean ez badakizu epai hori beteko den ala ez, zerbait asmatu behar duzu botere judiziala babesteko. Botere judizialak bere tokia behar du botereen arteko jokalekuan. Ohartzen ari badira horretaz, eta estatu arrazoiak tarteko ez badira, uste dut baliogabetzat jo dezaketela proiektua.

■ Eta horrek esan nahi du ez luketela beteko?

Ez, ez. Prozesua hasieratik has dezakete berriro, baina, jakina, horrela beste hamar urte pasa daitezke. Horrek bikoiztuko lituzke presioak, baita urtegiaren aldekoen artean ere.

■ Edozein moduz, Gorenaren epai hau trantsiziokotzat jo dezakegu?

Uste dut beste datu bat dela berresten duena administrazio publikoak gaizki egin dituela gauzak. Kostuak ordaintzeko zigorra ez da oso ohikoa, eta iradokitzen du administrazioak ausarkeriaz jokatu duela. Halaber, ni, hiritar soil gisa, kezkatzen nau barrabaskeria juridiko honen arduradunek izen-abizenak dituztela.

■ Hala ere, ezinezkoa dirudi orain arte egin duten guztia bertan behera geratzea horrek ekarriko lukeen lurrikara politiko-ekonomikoarekin. Itoitz urez betetzea saihestezina dirudi.

Baina pentsamendu hori ez da oso demokratikoa. Demokrazia bada herriaren borondatea aplikatzea, eta hori bada legea aplikatzea, eta hori epaitegiei badagokie, eta epaitegiek badiote hori ez dela legezkoa, eta hori behin baino gehiagotan esan badute. Orain Auzitegi Nazionalak gehienez esango du Gorenaren epaia ezin dela aplikatu, baina ezin du esan proiektua legezkoa dela.

■ Baina Nafarroako Gobernua oso lasai dagoela ematen du, badirudi dena ongi lotuta dutela.

Ez dakit zer esan. Jakina, traumatikoa izan behar du Gobernuarentzat agintzea lanak geratzeko. Kasualitatez Auzitegi Nazionalak esaten badu dena legez kanpokoa dela, arazo politiko eta ekonomikoa izugarria da. Eta hor, herritarrek saiatu beharko lukete xahututako dirua lortzen lan horretan hain kementsu jardun duten arduradun politikoen jabetza pertsonaletatik. Nik neuk uste dut, gertatzen dena gertatzen dela, Itoizko afera luzerako dugula oraindik, test bat delako botere judizialarentzat, ingurumen zuzenbidearentzat, ur politikarentzat...